

## Adi datuari

80

Asteon hasi dira arabarrak, bizkaitarrak eta nafarrak errenta eta ondarea aitortzen. Gipuzkoan eta Ipar Euskal Herrian badira egun batzuk errenta kanpaina abiatu zutela, eta Gipuzkoako Ogasunak jakinarazi duenez, 80 milioi euro itzuli dizkiete jada zergapekoei. Araban, Gipuzkoan eta Nafarroan ekainaren 26an amaituko da kanpaina eta ekainaren 30ean Bizkaian.

388

Merkatuen liberalizazioak kontsumitzaileen paradisua ekarriko duela azpimarratu izan du maiz Europako Batzordeak. Lehia areagotzearekin batera, zerbitzuak hobetu eta prezioak jaitsiko direla ziurtatu du. Egia bestelakoa da. Aste honetan bertan kimikagintzako zazpi talderi 388 milioi euroko isuna jarri die, 1994 eta 2000 bitartean prezioetan adostegatik.

4.338

Langabeziak behera egin zuen apirilean Hego Euskal Herrian. INEMen arabera, 4.338 pertsona gutxiago ari ziren lan bila joan zen, eta langabezia tasa %7,9ra jaitsi da. Herrialde guztietan egin du behera, gainera, langabe kopuruak, baina artean 106.226 pertsona lan gabe daude. Euroguneko langabezia tasa %8,1ean da, eta Europako Batasuneko %8,4an.

Joseba Garmendia

ASTEARI SO



## Geografiarekiko konpromiso gunea (I)

Volkswagenek Nafarroako faktoriari lan zama murrizteko neurriarekin mehatxatzen du. Bizkaiko Metaleko patronalaren ordezkariak bertako enpresei deslokalizazioa aholkatu die etorkizunerako apustu gisa. Espainiako Gobernuak kostu politikoak jasateko prest omen dago duela gutxira arte publikoa zen Endesaren erabaki zentroa Estatuan mantendu dadin, Gas Naturalen erosketa lehenetsiz eta Alemaniako E.ONen aukera oztopatuz. Jean Lasalle diputatuak bost asteko gose greba egin du Toyal enpresa japoniarrek Biarnotik ospa egin dezan saihesteko. Lortu ere antza. Kataluniako Estatutu berrian deslokalizazioaren fenomenoari aurre egiteko tresnen beharren kezka agerikoa da.

Adibide guzti hauek argi adierazten dute erabakigunea non dagoen eta geografiari dion lotura ahul-sendoagoak ze nolako garrantzia duen ekonomia lokalean. Globalizazio produktiboak asimetria nabarmena duelako. Kapital faktoreak mugikortasun erraza eta handia duen bitartean, lan faktoreak ez du mugikortasun maila hori, eta ez dut uste inork desiragarria ikusten duenik ere. Finantz jarioa interneteko sareaz mugitu daitekeen arren, lan faktorea langileak dira, pertsonak dira, familia, sustraiak, kultura, hizkuntzadunak, izaki sozial eta kulturalak hain zuzen ere. Ondorioz enplegua eta aberastasuna non sortzen den, geografia produktibo hori hain zuzen ere, ezin da ahaztu edo alboratu.

Geografia honi atxekita dago erabakigunea edo kontrola noren esku dagoen eta zein ikuspegiarekin iharduten duen. Oso ezberdina baita Ericsson, Daewoo, Volkswagen, Mercedes-en jokabidea edota Fagorrena. Guztiak dira multinazionalak eta deslokalizazioaren dinamikan murgilduta daude. Baina lehen multzoak irizpide tekniko ekonomiko hutsak erabiliko ditu erabaki ekuazioetan (zalantzak ditut eragin politikoek zein neurrirarte duten eraginkortasuna, eman ohi diren diru laguntzen efektu iragankorrez haratago). Aldiz, Fagorrek irizpide horietaz gain geografiarekiko arduraren faktorea barneratu beharra dauka, besteak beste, langileak sozio eta jabe direlako.


Garapen endogenoaren mamia ez datza tokiko baliabideak (kapitala, azpiegiturak, ezagutza, teknologia, langileriaren prestakuntza, lan eremu instituzionala,...) mobilizatuz sare produktiboaren ernaraztean soilik. Prozesu hori lokalki sostengarria izatean ere badatza eta horrek esanahi du geografia sozial eta kulturalarekiko arduratsua izan behar duela. Garapen endogenoak aberria edo komunitatea izan behar du edo bestela globalizazio neoliberalaren logikak irentsi egingo du. Derradan bide batez aberriek edo zentzu identitario kolektiboek badutela eragin positiboa garapen endogenoan. Baina berrelkadura edo feedback hori beste egun bateko gaia daiteke.

Orduan galdera honako izan daiteke: zeintzu dira geografia honekiko arduratsu joka dezaketen erabaki gunek edo kontrol bitartekoak? Klasikoki enpresa publikoari eman zaio erantzukizun edo ezaugarri hori. Gure kasuan enpresa publikoaren praktika urria egon izan da. Gainera 80. hamarkadatik aurrera pribatizatzeko korranteak aukera hori lurperatzea ekarri du. Evo Moralesek eztabaidagai jarri duen nazionalizatze berba European azkeneko zentzun zela Mitterrandek banka nazionalizatu behar zuela esan zuenean izan zen.

Europako Batasuneko Tratatuak ez die estatuei enpresa publikoak izateko eta sortzeko eskuduntza ukatzen, baina Kompetentziaren Defentsarako politikak muga batzuk ezartzen ditu. Muga hauek industri dibertsifikaziorako politika endogenoa zaildu egiten du. Zaildu, baina ez eragotzi.

Hurrengo astean jarraituko du.

## Asteko irudia



## Bosgarren lan erreforma abian

1984tik bost erreforma ezarri dira. Azkenekoa ostegunean onartu zuten, espero zen bezala, Espainiako Gobernuak, CEOE-CEPYME sindikatuek, eta CCOO-UGT sindikatuek. Gobernuak nabarmendu du behin-behineko kontratazioarekin amaitzeko arma dela erreforma. Jesus Caldera Espainiako Lan ministroak iragarri du milioi bat enplegu finko egingo direla. Datorren asteartean sinatuko da. ELA eta LABek salatu dute erreforma «iruzur hutsa» dela, besteak beste, egun dagoen lege iruzurraren aurkako inongo neurririk ez duelako aurrekusten. Era berean kaleratze merkeagoko kontratu finkoa orokortu egingo dela salatu du ELAk. BALLESTEROS/EFE

## Aste honetan entzunak



«Gura edo gura ez lekualdatzeei heldu behar diete enpresek, ez baitira lehen bezain lehiakorrak»

IGNACIO SAENZ DE GORBEA  
Bizkaiko metaleko enpresen burua



«VWk oraindik erabakirik ez hartzea oso garrantzitsua; ados jartzeko aukerak handiagoak ditu»

MIGUEL SANZ  
Nafarroako presidentea



«Estatu batek ezin du protekzionismoagatik erosteko eskaintza publiko batean esku hartu»

WOLF BERNOTAT  
E.ONeko presidentea